

MUTRIKU-SATURRARAN ARTEKO ITSASLABARRAK

Itsaslabar malkartsuaren oinetan, itsasbeherak nahiko helezina den uradura-plataforma bat uzten du agerian. Bertan, marearteko ekosistemak nabarmentzen dira, non marea-putzuetan harrapatutako algak, ornogabeak eta arrain txikiak, ura noiz bueltatuko zain egoten diren.

Itsas haizearen eragin lehorgarri eta higagarriari aurre eginez, landare gutxi batzuk baino ez dira bizi arrailduretan eta itsasertzeko erlaitz ezegonkorretan. Sarritan, landare mamitsuak dira, eta haien ehunak loditu egin dira ur-erreserbak gordetzeko.

Lehorreko hegaletan iralekuak, pre-txilardiak eta zenbait zuhaixka hazten dira, hala nola, gurbitza, karraskila edo artea.

Labarraren ezegonkortasuna dela eta, ez da hegazti habiagilerik egoten. Hala ere, hainbat itsas hegazti hurbiltzen dira ingurura elikagai bila; kaioak, ubarroiak edo zangaluzeak kasu.



Itsaslabarrak



Marearteko zabalgunea



Itsas plantaina